

## 2014-UDAZKENA-LANDA INGURUNeko AUZO BATZARRAK

<b>Auzoa</b> Barrio	LANDA INGURUNEA / ENTORNO RURAL
<b>Data</b> Fecha <b>Ordutegia</b> Horario <b>Lekua</b> Lugar	2014-12-04 19:00 – 20:15 Udal Hitzaldiko Gela / Sala de Conferencias Municipal
<b>Asistentzia</b> Asistencia	<p><b>*Ordezkaritza politikoa / Representación política</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jon Iñaki Urkixo Orueta (BILDU)</li> <li>- Amets Meaza Castañares (BILDU)</li> <li>- Koldo Zabala Atxa (BILDU)</li> <li>- Juanma Ibarretxe Revuelta (EAJ-PNV)</li> <li>- Julián Larisgoitia Zarate (PSE-EE)</li> <li>- Nerea Gonzalez Garcia (OMNIA)</li> </ul> <p><b>*Udal teknikariak / Técnicas/os municipales</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Juan Fernando Etxebarri Goiria, Jefe de Obras.</li> <li>- Felipe Markuartu Goikoetxea, Encargado Obras.</li> <li>- Jon Ander Gastaka Gorostiola, Técnico Montes.</li> <li>- Javi Pagazaurtundua Basterra, Técnico Patrimonio</li> <li>- Nerea Garaio Eskisabel (Aialur)</li> </ul> <p><b>*Idazkaria / Secretaria</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaskun Egia Eskuza</li> </ul> <p><b>*Dinamizatzailea / Moderador</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jose Cerro Alvarado</li> </ul> <p><b>*Auzokideak / Vecinas/os</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Total: 9 personas</li> <li>- 8 hombres y 1 mujer</li> </ul>
<b>Gai-ordena</b> Orden del día	<ol style="list-style-type: none"> <li>0.- Aurkezpena</li> <li>1.- Trukatzeak</li> <li>2.- Inbertsioak Hiltegian</li> <li>3.- Baserritarren azoka, hilabete bakoitzeko bigarren zapatuan edo larunbatean.</li> <li>4.- Larreak. Zabalik dago larreetara ganadua sartzea eskatzeko.</li> <li>5.- Landa-bideak</li> <li>6.- Santa Luzia (uraren hornidura, maiatzeko azken astelehen jaia, planeamenduko aholku batzordearenn onarpena.).</li> <li>7.- Laudio udalaren web berria (<a href="http://www.laudio.eus">www.laudio.eus</a>)</li> </ol> <p>Berriak: zu zeu udala; beste gauza berri bat: Zalantzaren bat galdetzen duen edozein</p>

	<p>auzokorentzat erantzun arineko postontzia. 8.- Enpresen mintegia (15 m2ko 9 lokal; inbertsioa: 90.600 €)</p>
<p><b>Contenido.</b> Contenido</p>	<p><b>1.- TRUKATZEAK (azalpena eman du Javi Pagazaurtunduak)</b> Trukatzeen prozesua oso antzinako eta aspaldiko gaia da eta oso handinahitsua, sekula ez dena formalizatu eta orain gauzatzen ari dena. Horrekin konponduko dira egoera asko oso nahastuta zeudenak bai udal ondarrerako bai norbanakoen ondarrerako ere. Praktikan, aurreko agintaldiaren amaieran eta batez ere agintaldi honetan hasitako trukatzeen azken fasera ailegatzen ari gara. Geldirarazita zeuden hainbat eta hainbat elementuren gainean Aldundiak ebazpena hartzeak, lagundu egin du udalak egin beharreko zituen trukatzeen piloak, bete eta formalizatu egin ahal izan zitezten. Berba egiten ari da egoera batzuetan urte askotan egin behar dugula atzera horiek legeztatu ahal izateko. Badago lehen multxo handi bat 7 trukekoa, abenduko hilabete honetako Osoko bilkuran sartuko direnak, hala nola diren, Olarteko presa, Jose Maria Arbide futbol zelaia lagatzeaz, Zenagortagana eta Pagolar aldeko norbanako bat. Gero, geratuko litzateke azken fasea, eta horretan dago taldetxo bat jada onartuta dagoena ere Aldundiaren aldetik, Santiago Ussia, Anton Egia, Mateo Escuzarena izango litzatekeena. Azken horiek, azkoz jota, urtarrila-otsailako Osokoan sartuko lirateke, izan ere orain udalaren arazo soila baita. Azken bloke bat legoke, denboran zehar gertatzen joan izan diren azken sartzeeekin, Arraño legez, zein planetik kanpo geratu zen egin zirenean, plan orokorrak aurreikusten ez zituelako. Horregatik, Aldundiarekin akordio batera heldu zen zen, horiek eskura zitzaten erabilera eta onura publikoko baso ondoko lursailak eta, horrela, trukeen akordio batera heltzea. Halaber, Santa Ana aldean, badaude bi azken inkorporazio hauengatik formalizatzeren zain daduen beste bi.</p> <p><b>2.- INBERTSIOAK HILTEGIAN:</b> 2013an eta 2014an egin izan direnez gain, jarraituko da inbertsioak egiten. Baserritarrek askotan helarazi dute lehentasunezkoa dela hiltegiaren alde apustu egiten jarraitzea, zeren beste aukera bazen ganadua eramatea Zestoaraino edo kasu batzuetan Haroraino. Hiltegian sakrifikatzen den buru zenbatekoa igo egin da, inguruneko hiltegietakoa gutxienetakoa delako, beraz, bertara doaz auzo herrietako eta mugaldekoko baserritarrak, eta gauza horrek onura dakarkio udalerritari ere, zeren diru-sarrerak ematen dituzten inbertsioak direlako.</p> <p><b>3.- BASERRITARREN AZOKA, HILE BAKOITZEKO BIGARREN LARUNBATEAN.</b> Eguen ostegunetan azokan dauden baserritarrek sustatutako ekimena izan da. Nahi da baserritarren azoka bat egitea hilabete bakoitzeko bigarren larunbata bakoitzeko, produktuen salmenta zuzena bultzatzeko. Lehena egingo da abenduaren 13an eta espero da, funtzionatzen joan dadin, apur apurka. Udalak lagunduko dien salmenta zuzen</p>

hori sustatzeko, herriko komunikabideetan, udal aldizkarian, ... publizitatean emanaz.

#### **4.-LARREAK:**

Larre eskaerak egiteko epea zabaldu da, 2015 urtean larreetara sartzeko. Informazio gehiagorako edo eskaera horiek egiteko, pasatu behar da Arza Poligonoan dagoena Tokiko Garapen Agentziaz, asteleheneetik ostiralera, 9:00-14:00 ordutegian. Alkateak gogorazi du ezen abenduaren 22an bilera bat egingo dela larreetaz tratatzeko.

#### **5.- LANDA-BIDEAK**

Hainbat urtera begirako plangintza egin zen inbertitzeko urte batetik bestera landa-bideen hobetzean.

2012 urtean hasi zen 60.000€ zuen partida batekin.

2013 urtean Astobiza, Gardeagotxi, Olako, Morteru, eta Lekandazahar aldeei ekin genien, 117.888€ko inbertizioaz.

2014an amaitu berri da guztirako 232.000€ren inbertsio baten esleipena; horietatik 82.000€ dira asfaltatzeko landa arloa (batez ere, Lusurbeilanda, eta zertxobait Katuxa Ibarra eta Gardeagotxi aldean) eta gainerakoa bada asfaltatzeko Irugurutzetatik Txirrita arte, Gardea asfaltatzeko. Lanak laster barru hasiko dira.

2015 urtean jarraituko da hobetze ekimen horiekin.

#### **6.- SANTA LUZIA:**

- Plangintza Aholku Batzordeak bilera egin zuen eta aldeko txostena eman zio Ermu eta Santa Luzia Monumentu Multzorearen Plan Bereziari buruz. Uraren Euskal Agentziak onartu du dagoeneko Plan Berezi hori eta ez du inolako eragozpenik jarri; soilik nabarmendu du alde horretako errekastoetan ezin izango dela isurketarik egon, baina, nolana, kasu guztietan legeak markatzen dituen gauzak dira.

- Amaitu dira dagoeneko Santa Luziara edateko ura eramateko obralanak. Juanferrek azaldu azaldu du amaitu direla dagoeneko instalazio obralanak eta hasi egin direla frogak tutuak garbitzeko. Hurrengo egunetik, asteartetik, hasita, interesatutako jendeari alta eman dakioke Izoria kaleko bulegoa eta edateko ura etxe barruan egon liteke hurrengo 8-10 egun barru; dena den, tutuak garbitzen eta desinfektatzen irauten den denbora baino ez. Gero instalazio partikularrak nork berak eta bakoitzak egin behar ditu, hau da, kontagailuaren koadroa edo armairua eta hartune partikularra.

- Gainera, gogorarazten de pasa den urtean onartu zela Santa Luziako Jaiak antolatzen dituen taldeak aurkeztutako proposamena egun zehatza ipintzeko Santa Luzia ospatzeko eta horrela jai hori bultzatzeko. Egundak hori maiatzaren azken astelehenean finkatzean datza saioa.

#### **7.- UDALAREN WEB ORRI BERRIA ([www.laudio.eus](http://www.laudio.eus))**

Argiagoa, funtzionalagoa eta parte hartzaileagoa.

Administrazioei leporatzen zaien akats bat da bada motela dela erantzuteko orduan edo bidetik erantzunik gabeko eskaerak geratu ohi direla. Aurkeztu den web orri berriak ez

	<p>du dena konponduko, baina iritzia bada hainbat gauza hobetzen lagunduko duela. Pertsona askok uste dute administrazioaren aurrean izapideren bat egitea zaila dela eta eta mundu guztiak ez dakizkiela jarraitu beharreko urratsak edo nora jo behar duen. Udalaren web orriaren berritze horretan, aldatzeko tematu izan dugun puntuetako bat izan da sarrerako postontzi bat sortzen edo erantzun azkarrekoa, udalarekin izapide bat egin nahi edozein auzokok galdetu ahal izan dezan zein urrats jarraitu, nora joan, norekin hitz egin behar duen, ..., eta horri erantzungo zaio ahalik eta lasterren. Web orriak bazituen nahikoa urte eta gaur egun badaude askoz aukera gehiago. Egokituko da orrialdean dagoen informazioa, batzuetan zaharkituta geratu izan dena; horretarako arloetako arduradun guztiei informazioa eskatu zaie. Aipatu den orri horretara sartu ahal izango da mugikorretik edo tabletetik era askozaz ere azkarragoan akatsak komunikatzeko,...</p> <p><b>8.- EMPRESA MINTEGIA:</b></p> <p>Aurten 90.600€ inbertitu da Arza Poligonoan dagoen enpresen mintegian. Instalazio horiek badituzte batz best 15 m<sup>2</sup> dituzten 9 bulego, 100€ inguruko alokairuaz, negozio baten ekintzailtzarako areto bat behar dutenentzako. Horrek ahalbidetuko die hasieratik lonja bat alokatu behar ez izatea, horrek suposatzen duen inbertsioarekin. 2 urte egon litezke lokale horietan.</p>
<p><b>Galderak</b> Preguntas</p>	<p>Auzokidea: Komentatu du Santa Luziako bihurguneetan marra-urradura batzuk egin beharko liratekeela, zeintzuk badauden leunago Isasiko aldatzean egin izan dena baino, izan ere euria egiten duen bakoitzean autoa joan egiten baita. Komenigarria da hori begiratzea eta konponbide bat bilatzea, zein balitekeen zertan izan behar ez izatea marra-urradurena zehazki.</p> <p>Koldo. Dio begirada bat botako zaiola eta proposatu du ikusten bada zonaren batek lehentasun handiagoa duela jakinarazi dakiola (Jon Anderri edo Feliperi).</p> <p>Felipe: Mara-urradurena azken aukerako sistema da, asfaltoa kentzen delako. Isasira jaisterakoan hori egin izan da, bazegoelako jada ditziratsu eta zerbait egin beharra zegoelako. Marra-urradurak egitea, leku jakin eta puntual baterako bada ondo, baina asfaltoa hondatzeko ez bada.</p> <p>Nerea (OMNIA): Galdetu du ea ez labanteko sistema edo produkturik dagoen asfaltoan irristatzea saihesteko.</p> <p>Felipe: Bai, bai baina askozaz ere garestiagoak dira.</p> <p>Auzokidea: Iradokitzen du (San Antonio atzetiko pista) haitzartera igotzeko zerbait egin beharko litzatekeela erreten eta zuloekin-. Badago manga bat goian eginikoa, baina, horrela, basabidea dagoen legez, ezin daiteke igo atoz, erreten horren sakonekin ibiliezina delako. Ez dio kendu behar direnik baina agian konponbidea izan zitekeen tutu batzuk satzea sarbidea errazagoa izan zedin. Lurroaren lupetzak eta lohiak itsasten dira errepidera. Eskatzen du begira dadin hori.</p>



Auzokidea: Azaldu du azken urte honetako tenperaturak direla-eta eta diputazioaren fumigatzeko aurrekontu faltaz, pinuak (esaterako, Kamaraktik beherakoan) oso txiker daudela. Ez da soilik pinuek gaisotasunen bat eduki dezaketelako, baizik eta pertsoneri eragin diezaikeelako. Galdetu du ea dakien noiz fumigatu den, zeren uste duen aurten ez dela egin eta badoazela 4 urte jarraian hori egin barik behar den legez eta baldintzetan. Uste du murrizketek beti eragiten dutela zona berdinetan.

Nerea Garaio: Dio iaz bai fumigatu egin zela, baina aurten izan diren tenperatura altuekin, txarto egon dela. Urte guztietan idatzi ohi dutela eskutitza Aldundira eskatuz eta markatuz egoerarik txarrean ikusten diren mantxak eta Kamarakarako igoera zona horietako bat da. Gertatzen dena bada aurten ez zegoela dirurik, orain dela 4 urte zeukaten aurrekontuko laugarren zati bat daukatelako eta Laudiotik ezta pasatu ere ez dira egin. Ea datorre n urtean, nahiz diru gutxiago egon, egokitzen zaigun, urte guztietan egiten baita eskaera.

Iaz egin zuten fumigazio bat hegaldi bidez eta gero, oso gaizki dauden zonak badaude, pasatu ohi dira leku puntual horietarik ibiliz eta errepasatuz. Nekazaritza ekologikoan altan emanda dauden zonetan tratatzen da, diotenez, apur bat eragin gutxiagokoa den "vacilus" batekin.

Auzokidea: Diote Arabako Aldundiaren arabera debekatuta dagoela ahuntzak soltu ibiltzea eta udalak, ostera, baimena ematen die. Aurten Isusi-Santa Luzia auzoan arrasatu dituzte ortuak eta eukalipoen landaketa bat.

Jon Ander: Basotik dabilzan ahuntzak legeztatuta daude eta horixe da, hain zuzen ere, konprobatzen ari garena.

Nerea Garaio: Foru Arauak ez dio ezer ahuntzak egon ezinaz Arauak dio ez dela baimentzen horien artzaintza normala, baina baimenduta dago larreen barruan. Udalak baimentzen du artzaintza eta larre publikoan sartzea. Santa Luzian baimenduta daude ehunetik gora ahuntz.

Auzokidea: Ezin dira ahuntzak erosi eta basoan askatu, hori baita jendeak egin ohi duena. Arazoa da Laudion altan ematen diren ahuntzen %90a badirela basoan askatzeko eta hori badago guztiz eta erabat debekatuta. Horregatik, azken egun hauetan, udalaren aldetik saiatzen ari gara dauden ahuntzak identifikatzen. Orain urte batzuk, arazo izan zen erabat desagerraraztea lortu zena eta bueltatu dena. Komenigarria litzateke gogoraraztea ahuntzak altan ematen dituen jendeari, oso arretsuak izan daitezen Foru Araua betetzearekin, zeren uste baitut baimentzen diren %50ak ez duela Foru Arauak betetzen. Orain ahuntz talde asko dago eta aurten askozaz ere gehiago egon dira. Santa Luzia leku eroso da ahuntzak basora botatzeko, kotxez joan daitekeelako begiratzera eta gero han berriro uzteko.

Gaineratu du Udalak larreak kobratu egiten dituela, ahuntzak jaten ari direnean herriarena ez terreno partikularrean. Egin zitekeen Amurrion legez, larreak itxi eta ganadua egon dadila larreen barruan.



Javi Pagaza: Ahuntzak erregulatuta egon dira, bestela bada animalia predatzailea aurkitzen duen guztia jan eta aurretik daraman. Garai batean lortu zen desagerraraztea eta lan handia kostatu zen.

Auzokidea: Komentatu du orain ahuntzak diruz lagunduta daudela eta asko, eta jendea animatzen ari dela horiek erosten.

Nerea Garaio: Proposatu du hori trata dadila abenduaren 22ko Larreen Batzordean eta bertan erabaki ahal izango dela ahuntzak baimentzea soilik itxita dauden larreetan, Larrañon legez, zeren ikusten ari garen ezin direla kontrolatu beste gainerako larre guztietan.

Auzokidea: Eskertzen dio Udalbatzari Santa Luzia edateko uraz hornitzeagatik eta, gainera, aurreikusitako epea amaitu aurretik. Gaineratu du argi eta garbi markatu behar direla basoetako larreen arauak eta horiek betearazi egin behar direla. Kontrolatzea eskatzen duen jendea Laudiokoa izatea eta ez daitezen izan jubilatua.

Auzokidea: Berba egiten ari da ahuntzen gainean, baina berba egin daiteke, baita ere, orkatzaz edo basurdeaz. Basurdea beherantz jaisten ari da eta aurreko batzarrean irten zen arazo hau.

Juanma Ibarretxe: Galdetu du ea edozein lekutan bazkatzen zuten behien arazoa konponduta dagoen eta ea behien zenbatekoa jaitsi egin den.

Jon Ander: Dio aurtetik ez dela egon arazoa ez eta kalte aipagarriarik. Lehen deskalabru bat izan zen, baina orain jada konponduta dago. Badaude oso arazo puntualak, baina hori normala dela.

Auzokidea: Berba egite du basurdeak sortutako kalteen arazoaz. Leziagatik gorantz oso txarto dago. 5 urte darama eskaerak eginez Udalari. Udaletxean, ehiza-esparruko den Jesusek erantzuten du arazoa Udalarena dela eta Udalak bere aldetik dio ehiza-esparruko arazoa dela. Motxotekale auzoa hondatuta eta sats eginda dago. Landetako%30-40 batek ematen du goldeaz landuta daudela.

Koldo. Komentatu du badagoela ehiza-esparruari eginiko lagatze bati eta badagoela kontratu bat non baldintzak oso argi eta garbi dauden. 2015eko amaierara arte ehiza-esparruari dagokio kalteez bere kargu egitea. Ehiza-esparruak eduki behar du aseguru bat egin daitezen kalte eta galerekin erantzuteko. Erantzukizunak oso garbi daude.

Auzokidea: Ez dio eragozten basurdeak soilik, baizik eta ehiza-esparruko pertsonen jarrerak ere.

Jon Ander: Irakur ezazu ehiza-esparruarekin kontratuko 8. Kласula non hitzez hitz dioen "ehiza-esparru barruan dauden finken nekazaritza edo baasogintza laboreek jasan ditzaketan kalteak aprobetxamendu planek ehiza baimendutako espezi zinegetiko ezberdinei egoz dakizkiekeenak – hau da, basurdea- ehiza-esparruaren esleipenduak ordainduko ditu, kasu honetan ehiza-esparruak berak".

Auzokidea: Konponbidea bada Udala ehiza-esparruko pertsonekin biltzea eta hori ulertaraztea eta neurriak har ditzatela.

Koldo. Aldundiko basozainak konponbide asko eskaini ditu, besteak beste, aparteko ehizaldiak.

Auzokidea: Baiesten du basozainak eskaini dituela mota guztietako neurriak, hala nola, kaiolak, astebarruan ehizatzea, Bizkaiarekin bat eta ados jarrita ehizaldiak egitea, badaezpada basurdea harantza doan, ... Ehiza-esparruak ez du onartzen ezer beraiek soilik nahi dutelako beraien asteburuko dibersioa.

Koldo. Dio hartuemanetan jarriko direla ehiza-esparruko arduradunekin eta jakinaraziko zaiela kontratu bat dutela betetzeko. Gainera, abeltzainei ere jakinaraziko zaie hori, zeren kontratuaren kopia bat ere baduten. 2015ean amaituko da lagapen hori eta orduan, lagapen hori itxiko da orain dagoena baino gehiago, nahikoa lotuta dagoen arren.

Julián Larisgoitia: Galdetu du zenbat ordaintzen duten ehiza-esparrukoek.

Nerea Garaio: Dio Udalari ordaintzen dioten berrehundik gora euro eta Aldundiari beste berrehundik gora.

Auzokidea: Azaldu du iaz, ehiza-esparrukoek atzetik denbora luzea ibili ostean, landetako alanbreetan likido atzera-eragilea ipini zutela, baina 10 egunetan zehar funtzionatu zuela baina gero berdin jarraitu zuela.

Ehiza-esparruak diotso auzokoari, ezen daukan itxituraz aparte ipini dezala artzain elektrikoak, baina sekula ez dute ezer komentatu egindako kalteak konpontzeaz, ez ez dute esku bat laguntza eskaini, kalteak konpontzen ikusi dituztenean ere.

Julián Larisgoitia: Aditua du ezen Bitorikan, egona zela arazoren bat edo beste basurde batekin; Aldundiko Ingurumenak esku hartu zuela eta artzain elektriko bat ipini zela.

Nerea Garaio: Baliteke zona hori berreskuratu izana ingurumenak.

Auzokidea: Komentatu due Motxotekaleko postontziak oso hondatuta daudela. Batzuei atea falta zaizkie eta postariek sartzen dituzte horietan eskutitzak. Ikastolako umeez botatzen dituzte eskutitz guztiak lurretik.

Juanfer: Ez dago aurreikusita horiek aldatzerik. Ez du uste denbora asko beharko denik hori egiteko. Badaude, gutxi gora behera 8, balio dezaketanak, eta gainerakoak aldatu egingo dira.

Auzokidea: Eskatu du utz dakion Zuina, esaterako, soilik izenak dauden lekuan eta ez postontzi guztietan, bestela, erabiltzen ez diren postontziak bete bete egin ohi dira-eta.